

NERE CHAKURRA

San Bizente kaletik
Brechara baño len,
chakur leial polit bat
anchen galdu nuen;
egia da sagurik
achitzen etzuen,
baña jateko nola
berdiñik ezduen,
kontatuko ditut zer
siñale dituen.

Pachikuk jarritako
izena du Pecha,
goiz askotan joaten da
bustitzera Brecha;
mutur chorroch chorrocha,
bizkar gaña belcha,
guraizez ebakia
belarrien ercha
eta tajadarekiñ
achitzen erresa.

Luzez ezta izango
alako ankikan,
lo dagonian eztu
egiten kinkikan:
zer ibiltzen dituen
arrek atzetikan,
atzekien azpian
eta chinchilikan,
nik uste det ez dala
eztakienikan.

Bere ille churiak
dirudi iriña.
begi zalalak eta
berago oriña;
gorputza egokia,
pausuaariña,
atzianplumajia
kizkurtu fiñ fiña,
bekuak tapatzeko
apropos egiña.

Orrengatik ez nuben
salduko jez eta!
naiz urretan pagatu
larogei pezeta;
lepua koskabillo
politez beteta,
aiendanen gañian
nausien bi letra,
eta tripa azpian
ezetra ezetra.

Goizeko jartzen nion
katillu zabala,
chocolate onakiñ
kabi eziñ ala;
badakit kutizia
aundikua zala,
ezpazituen onak
kakaba, kanela,
etzan artzen asiko
bere beruela.

Gañera jale ona
 izangatikan,
 kriantzaz serbitzen zan
 plater garbitikan;
 mokadu bat etzuen
 jango lurretikan;
 ez eta eran ere
 uren tantorikan,
 neskachakezpazion
 sartzen esponjikan.

Kostilla egotera
 su gañian ketan,
 tan nai ezik aguro
 jarriko zan setan;
 chit zan delikatua
 gauza guzietan;
 asitzen bazan ere
 jaten banaketan,
 aurretik igortzi ta
 ondo manteketan.

Udako artsaldetan
 askotan echetik,
 biak irteten giñan
 pasiatziatik;
 nola sufritzen zuen
 gaisuak burutik,
sombrilla zabaldutzen
 nion momentutik,
 eguzkiak miñik ez
 egitiagatik.

Zerbait nekatzen bazan
 gelditzen zan bertan,
 mugitu nai ezikan
 ordu osuetan;
 arkitutzen zanian
 orlako kasketan,
 aurcho baten modura
 pozik batzuetan,
 neronek eramaten
 nuen besuetan.

Atzeko labechotik
 bere suertez aurtan,
 tanbor soñuak ere
 ondo zauzka irten;
 konpasaeramanaz
 zituen egiten,
 erretreta frantzesan
 nola ziruditen,
 ala etzuen parra
 guchi eragiten.

Zurriolako kale
 illun aren bazter,
 choku artan bizi naiz
 kaletikan ezker;
 chakurra eramaten
 diranari laister,
 itez emango dizkat
 nai ainbeste esker
 gero... ezta izango
 eskupetik ezer.

VICTORIANO IRAOLA